



AURKEZPENA

Kaixo! Irati Zubeldia, Aiara Altuna, Jone Arrieta, Garazi Maiz eta Nerea Ventoso gara. Lagunartean bururatu zaigun eta garatu nahi izan dugun ideia bat aurkezten dizuegu hemen, **LUXIL** izenez ezagutarazi nahi duguna.

Gaur egungo egoera klimatikoa larriak asko kezkatzen gaituenez, egoera hau hobetzeko egin dezakeguna gutxi bada ere, gure aportazio txikia egin nahi genuen jasagarria eta onuragarria den proiektu bat defendatuz. Horregatik, proiektu honetan, bitxiak ekoizteko asmoa daukagu birziklatutako materialak erabiliz. Hori horrela, hondakinak gutxitu eta jasagarria den produkzio baten aldeko mundu bat defendatuko dugu.

Era berean jendearen arazoarekiko kezka aregotu eta benetako aldaketa bat eragin nahi dugu arazo larri honi irtenbide bat bilatzen lagunduz.

Gure ingurunearekiko politika oso garrantzitsua da gure enpresarentzat, proiektu hau aurrera ateratzeko arrazoi nagusietako bat delako. Horregatik proiektuarekiko gure konpromisoa oso handia da eta guztiz inplikatzeko prest gaude.

